CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Uholde arriskuei lotutakoak: arloko araudi eta planak aipatu ondoren, 100 eta 500 urteko itzuli-aldiko uholde orbanak identifikatzen ditu Landabaso eta Artika (Artigas) erreken ibai-ibilguetan; adierazten du ere eremuko prezipitazio isomaximoa 375 mm/egunekoa dela 500 urteko itzuli-aldirako eta, beraz, dreinadura obra guztientzat kontutan hartu beharko dela datu hau

- Lurrikara arriskua: IV-V intentsitate gunean kokatzen dela dio; hala ere, eraikuntza berrietan kontutan izango da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretu bitartez onartutako lurrikaren aurkako Eraikuntza Araua: parte orokorra eta eraikuntza (NCSR-02).

- Baso-sute arriskua: Eusko Jaurlaritzaren arriskuei buruzko kartografia aipatzen du eta adierazten du kontutan hartu beharko direla Euskal Autonomi Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak Autobabes Planak egiteko beharrari dagokionez suteak izateko arrisku handiko eremuetan edo hiri edo baso interfazeko esparruetan, eta baita kanpatze instalazioei dagokiona, hurrenez hurren

- Teknologi-arriskuak: merkantzia arriskutsuen garraio-arriskuari dagokionez, adierazten du merkantzia arriskutsuak zeharkatu dezaketen bidea eskualdeko sareko BI-631 eta BI-2235 eskualde sareko errepideak direla eta EJk egindako arriskuen mapan 600 metroko lerro bat marraztu dela aztertutako azpiegituraren alde bietan. Hau izango litzateke esku-hartzerako gunea kontrako baldintzetan istripu bat egongo balitz, Materia Arriskutsuekin Istripuen aurrean Esku-hartze Fitxen gomendioen arabera, eta komenigarritzat jotzen du komunikazio bideen aldaketetan kontutan hartzea larrialdi-ibilgailuen joan etorriak errazteko ekimenak. Seveso III araudiari dagokionez (sustantzia arriskutsuekin lotutako istripu larrien arriskua) ez da adierazten inolako araudi honen menpeko establezimendurik Bermeon.

- Beste arrisku batzuen atalean hiriko suteen arriskua aipatzen du. Nabarmentzat jotzen du hau, adieraziz plangintzan hura arintzeko neurriak hartzea kontutan hartu beharko dela. Aipatzen du ere itsasoak eragin dezaken arriskua, esanez lanean ari direla bere identifikatze eta prebentzio neurriei dagokionez, eta kontutan hartu beharko dela ere.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzatik bigarren txosten bat jaso zen



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

non jasotzen zen:

Uholdeak izateko arriskua dela eta, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren eraginpeko eremua zehaztu ondoren, uholde-arriskuari dagokionean hauxe zehaztu behar da: "Bermeoko Udalerriko herrigunearen kasu zehatzean, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholde-orbanen bidez Landa eta Artika ibaietako ur ibilguak identifikatu diren" arren, aztergai dagoen eremu zehatzean 500 urteko birgertatze-aldiko uholde-orbanak baino ez dira kontuan hartu behar.

Bestalde, ordenatu beharreko eremua udalerriko Alde Zaharra denez, bertan larrialdietako zerbitzuek izaten dituzten irisgarritasun arazoak handiak direla eta sua erraz zabaltzen dela kontuan hartzen badugu, proposatu nahi dugu hainbat neurri hartzea, larrialdietako zerbitzuek beren lana egiteko alde zaharrera sar daitezen errazteko neurriak, eta kontrolik gabeko sutea sortzeko aukerak eta, bereziki, sutea zabaltzeko aukerak murrizteko neurriak.

Neurri horiek kontuan hartuko dira testu bateginean.

5. Eusko Jaurlaritzako **Natura Ondarearen Zerbitzuak** txostena egin zuen. Bertan natura ondareari buruz informazioa lortzeko dauden baliabideei buruzko informazioa ematen du (ingurumen arloko oinarrizko kartografia eta kartografia xehatua), webguneak eta informazio geografikoko bisoreak aipatuz.

6. Bizkaiko Foru Aldundiko **Lurralde Antolamendurako Atala**k egindako txostenak Busturialdea-Artibai Eremu Funtzionaleko LPPtik datozen plangintzarako afekzioak adierazten ditu, beraien artean nabarmenduz paisaiari dagozkionak (Plan Bereziaren araudian sartzea aurrera eramango diren obra proiektuei lotutako "Paisaia-integraziorako azterlanak"), eta, hala badagokio, Ingurumen Ebaluazio Estrategiko prozedura jarraitzea.

7. Bizkaiko Foru Aldundiko **Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluaziorako Atala**k txostena egin zuen non adierazten ditu Bermeoko alde zaharraren Plan Berezia idazterakoan kontutan hartu beharreko ingurumen baldintzapenak.

   Hasiera batean, ugari eta xehatu aipatzen du ingurumen arloan erreferentziakoa den legedia. Ondoren, ingurumen arloan Planak hartu behar dituen helburuak zehazten ditu.

   Horren ondoren, Plan Orokorrak jarraitu beharko dituen ingurumeneko irizpideaz ari da, xehetasunez eta gaiak zehaztuz.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Azkenik, txostenak ingurumen intereseko baliabide eta eremuen zerrenda egiten du. Ez da xehetasunetan sartzen alde zaharrari dagokionez (eta hain zuzen, eremu zehatz honi buruz eskatu zen txostena) eta, ordea, udalerri osoa eta bere eskualdea aipatzen ditu

8. Bizkaiko Foru Aldundiko **Biodibertsitate eta Paisaia Atalak** txostena egin zuen ekimena Urdaibai Biosfera Erreserba barruan dagoela esanez (ez du esaten ordea, hirigintza plangintza bidez antolatu beharreko gunean kokatzen dela) eta eremuan espezie mehatxatu bakar bezala adierazten ditu "etxeetan euskal herriko kiroptero mehatxatuak egon daitezkeela" eta beraz, Plan Bereziak beraien kontserbatzean eragin izan dezaketen ekintzak arautu behar dituela, esateko, etxebizitzak birgaitu.

9. Bizkaiko Foru **Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzua**k txostena egin zuen non Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera kalifikatutako edo inbentariatutako ondasunen zerrenda dakar eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondare Zentroari kontsulta egitea gomendatzen du informazio gehiago lortzeko.

   Esan behar da maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak ordezkatzen duela aipatutako 7/1990 Legea.

   Txostenean aipatutakoa bete beharko da.

10. **Euskal Uraren Agentziak (URAk)** egindako lehen txostenean kontsultatzea gomendatzen dute Agentziaren bisorean eta bere webguneko FTPn eskuragarri dagoen informazioa. Esaten dute arriskuren bat ikusiko balitz, berriz haiei kontsultatzeko, Plana era xehatuan aztertzeko.

    Igorritako bigarren txostenean esaten da:

    - Artika ibaiaren eta Landabaso errekaren jabari publiko hidraulikoko polizia-zonan egon litezke Plan Berezian jasotako jarduketa batzuk, adibidez Eskinarruaga kalea oinezkoentzat jartzea eta birzolatzea, baita saneamendu-sare orokorra hobetzea ere.
    - Ondorioz, gogorarazten da jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan kokatzen den jarduketa orok Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko administrazio-baimena beharko duela.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Itsas-lehorreko jabari publikoan dagoen erabilera anitzeko eraikina ezartzeari dagokionez, Kostaldeei buruzko araudian xedatutakoa beteko da.
- Alde Zaharreko hego-mendebaldeko zatian 500 urteko uholdeak eragina du.

Uholde-arriskuaren eraginpean dauden abmitoetan planteatzen diren jarduketek bete egin beharko dituzte Ekialdeko Ganbera Hidrologikoaren Plan Hidrologikoaren 40.4 artikuluan (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua) ezarritako erabileren mugak.

Esan behar da urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren berrikuspenak urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua indargabetu zuela.

- Hornidurari dagokionez, Plan Bereziaren zehaztapenek ez dakarte baliabide-behar esanguratsu berririk, eta, beraz, ez da erabaki behar baliabide horiek dauden ala ez.
- Saneamenduari dagokionez, positibotzat jo da Plan Bereziak saneamendu-sare orokorra hobetzea eta sistema bereizleak jartzea.

Beraz, aipatutako guztiak testu bategineko dokumentuan sartu beharko dira, txostenak dioena betetzeko.

11. **Euskal Trenbide Sareak** egindako lehen txostenean jaso da trenbidea Bermeoko Alde Zaharreko Plan Bereziaren eremutik kanpo dagoela, eta ez dela ikusten etorkizuneko garapena oztopa dezakeenik.

Hala ere, gogoratzen dute, Plan Bereziak EAEko trenbideko Lurralde Plan Sektorialaren eta Tren Sektoreari buruzko Legearen zehaztapenak bete beharko dituela.

Iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria

Aplikagarria den hirigintza arloko legedia da EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, dagokion hirigintzako Dekretuen bitartez garatua, eta, birgaitzearen arloan, urbanizatu eta ereikitako ondarearen birgaitze-jarduketeri buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua. Legezko testu biek plan berezien jarduketa-programen eta ekonomia-finantzei buruzko azterlanen norainokoa eta edukia ezartzen dute.

Hain zuzen ere, 2/2006 Legearen 69.3 artikuluak ezartzen du plan bereziaren zehaztapenak plan partzialaren antzeko dokumentuetan gauzatuko direla, beti ere bere edukia dagokion xedeari



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

egokituz. Bestalde, mugatutako gunean Birgaitze Integratuko Gune mugatua izatea kontutan hartu beharko da, aipatutako 317/2002 Dekretuaren 14 eta 15 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Hori dela eta, Plan Bereziaren parte dira Jarduketa-programa eta Ekonomia-finantza Azterlana dokumentuak.

Dokumentu horien ondorioa da proiektua ekonomikoki defizitarioa dela. Hala ere, ondorengo hau hartu behar dela kontutan dio:

- Alde batetik, Plan Bereziaren eremua hiri-lurzoru finkatua da, non jarduketen gehiena sustapen eta eskumen publikokoa da. Beraz, pribatuen parte-hartzea lagapenei eta obren egikaritzari dagokionez oso mugatua da.
- Sustapen pribatuaren ikuspegitik, Plan Berezia, nola hirigintza aldetik eremu finkatua den, ez du ia hirigintzako gainbaliorik eratzen. Horrek erabat mugatzen ditu aprobetxamendu, zuzkidura publiko eta egindako obren lagapenak eta diru-sarrerak. Beraz, sarrerak, ia bere osotasunean, EIOZ eta aplikagarri diren tasetatik datoz, eta baita transferentzien bitartez.
- Azkenik, eta EIOZ eta tasak eragindako diru-sarrerei dagokionez, ezin da zenbatu bere barruan jarduera urbanizatzaile publikoa, honek ez baitu zerga diru-sarrerarik eragiten. Beraz, norberaren baliabideekin edo beste administrazioen transferentzi bidez finantzatu behar dira.

Paisaiaren gaineko eraginaren azterketa

Ekainaren 3ko Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko 90/2014 Dekretuak dio:

- Paisaiaren katalogoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko **eremu funtzional** bakoitzeko paisaia osoa hartzen duten deskripzio- eta prospekzio-agiriak (4. artikulua).
- Zehaztapenak paisaiaren katalogoetatik ateratako irizpideak dira; katalogo horietan, paisaiaren kalitatearen helburuak garatzen dira, eta haiek lortzeko neurriak identifikatzen dira, dagokion **lurralde-plan partzia**lean sartzeko (5. artikulua).



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Paisaiaren ekintza-planak paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko esku-hartzeetarako bitartekoak dira, eta paisaiaren katalogoetan identifikatuta eta paisaiaren zehaztapenetan jasota dauden eta paisaiaren aldetik interes berezia duten eremuetarako dira, beste eremu batzuetan lantzeko aukera baztertu gabe (6. artikulua).
- Paisaian integratzearen azterlanak agiri teknikoak dira, eta, haietan, **obra- eta jarduera-proiektuak** egiteak paisaian eragiten dituen ondorioak aztertzen dira, eta obra eta jarduera horiek paisaian egokitasunez integratzeko onartutako irizpideak eta neurriak azaltzen dira (7. artikulua).

Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak ez du jasotzen Bermeoko Alde Zaharra paisaia-interes berezidun eremu gisa. Beraz, Plan Berezia ez dago kasu horien barne, eta, nahiz eta paisaia kontuan hartu izana plana osatzerakoan, ez da azterketa berezia egin.

<u>Genero ikuspegitik Plan Bereziak lukeen eragina</u>

Azterketaren arabera, Plan Berezi honen xedeak eta zehaztapen zehatzek ez dute jasotzen desberdintasun-egoerak sustatu ditzakeen alderdirik.

<u>Eragin linguistikoaren Ebaluazioa</u>

Azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren 50. artikuluan aurreikusten da hiri-antolamenduko plan bereziek eragin linguistikoaren ebaluazioa izan behar dutela.

Dekretuan adierazitakoari jarraituz, egin da "Bermeoko Alde Zaharraren plan bereziaren eragin linguistikoaren ebaluaziorako (ELE) txostena

**Proposamena**

Txosten honetan azaldutakoa kontuan hartuaz, "Bermeoko Alde Zaharraren babes eta mantentzerako Plan Berezia", Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legeak ezarritako irizpideetara eta bestelako araubidera egokituko litzatekeenez, oker edo hutsik ezean, ez legoke eragozpenik hasieraz onesteko. Ikusita txosten asko igorri zirenetik pasa den denbora proposatzen da, Plan Berezia hasieraz onetsi ondoren, berriz bidaltzea dokumentua organo sektorial guztiei, batetik



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54 | DOCUMENTO: 20241145156<br>Datea: 26/11/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

jakinarazteko dokumentua hasieraz onetsi dela eta, bestetik, euren txostenak eguneratu ditzaten”.

Bigarrena: Plan Berezia jaso beharreko dokumentazioari dagokioenez, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 69.3 eta 68. artikuluetan xedatutakoari jarraituta honako hau da:

a) Memoria informatiboa eta jusitifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzkeo eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentarauzko antolamenduari egokitzea.
b) Informazio planoak.
c) Antolamendu xehatuaren planoak.
d) Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.
e) Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza arauak.
f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

Espediente honetan dokumentazio hori aurkitzen da. Horretaz gain hurrengokoa ere aurki daiteke:

- Iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria (Plan Bereziaren 1.Eranskina): 7/2015 Legearen 22.4. artikuluaren arabera Plan Bereziak positiboki balioesten du esku-hartzeak, Dokumentu horien ondorioa da proiektua ekonomikoki defizitarioa dela. Hala ere, ondorengo hau hartu behar dela kontutan dio:
    - Alde batetik, Plan Bereziaren eremua hiri-lurzoru finkatua da, non jarduketen gehiena sustapen eta eskumen publikokoa da. Beraz, pribatuen parte-hartzea lagapenei eta obren egikaritzari dagokionez oso mugatua da.
    - Sustapen pribatuaren ikuspegitik, Plan Berezia, nola hirigintza aldetik eremu finkatua den, ez du ia hirigintzako gainbaliorik eratzen. Horrek erabat mugatzen ditu aprobetxamendu, zuzkidura publiko eta egindako obren lagapenak eta diru-sarrerak. Beraz, sarrerak, ia bere osotasunean, EIOZ eta aplikagarri diren tasetatik datoz, eta baita transferentzien bitartez.
    - Azkenik, eta EIOZ eta tasak eragindako diru-sarrerei dagokionez, ezin da zenbatu bere barruan jarduera urbanizatzaile publikoa, honek ez baitu zerga diru-sarrerarik



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eragiten. Beraz, norberaren baliabideekin edo beste administrazioen transferentzi bidez finantzatu behar dira.

- Genero ikuspegitik Plan Bereziak izan dezakeen eragina (Plan Bereziaren 3. Eranskina): Plan bereziak genero ikuspegitik egindako azterketan ez du eragin negatiborik aurreikusten. Plan berezian justifikatzen da Plan Bereziaren determinazio zehatzak ez dituela desberdintasunik sor ditzaketen atalik sortzen.
- Hizkuntza eraginaren Ebaluazioa, 179/2019 Dekretuaren 53. artikuluaren arabera: ez da hizkuntza eraginik aurreikusten, beraz, ez denez hizkuntza-inpaktu esanguratsurik aurreikusten, ELE hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea ez da beharrezkoa.

Beraz, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraldatzeko Plan Berezia Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2996 Legeak ezarritako arau xedapen eta irizpideetara egokitzen denez, hura hasieraz onar daiteke.

<u>Laugarrena</u>: Plan berezien izapidetzari dagokionez, hau da Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezartzen duena:

***97. artikulua*** *– Plan bereziak izapidetu eta onartzea.*

*1.– Plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin, izapidetu eta onartuko dira. Lurzoru urbanizaezinari edo lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeari eragiten dioten babes- eta kontserbazio-plan bereziak direnean, hasierako onespena eman ondoren, foru-aldundiko ingurumen-organora bidaliko dira, edo lurralde historiko batean baino gehiagotan eragina badute Eusko Jaurlaritzakora, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruz aurretiazko txostena egin dezan bi hilabeteko epean. Epe hori amaituta, aurrera egin ahal izango da izapideekin, prozedurari jarraipena emanez aurrean adierazitakoaren arabera. Lege honetan arautzen diren hiri-antolamendurako plan berezien kasuan, ez da eskatuko ingurumen-eraginaren baterako ebaluaziorik.*

***95. artikulua*** *– Plan partzialak izapidetzea.*

*– Plan partziala egitea udalei dagokie, berez, baina beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere egin dezake.*

*– Udalak hasierako onespena edo ezespen arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasirako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aurrera.*

*Udalerria Arabako lurralde historikoan badago, hasierako onespenari buruzko erabakia lurraldez eragindako administrazio-batzarrei ere jakinaraziko zaie. Eragiten dien plan-zatiaren espediente administratibo eta tekniko osoaren kopia bat bidaliko zaie, 20 eguneko epean txostena egin dezaten. Epe horretan erantzuten ez badute, aurrera egin ahal izango da izapideekin. Kontzejuaren txosten hori ez eskatzea nahikoa arrazoi izango da behin betiko onespena eteteko.*

- *Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingoz edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.*
- *Udalak plana behin-behingoz edo behin betiko –dagokionez– onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onespena eman zaionetik kontatuta. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, plan partziala alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.*
- *3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrien kasuan, behin-behineko onespena emateko erabakia hartu ondoren, 10 eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik– plana dagokion foru-aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan. 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespena behin betiko onespena izango da.*
- *Artikulu honetako aurreko paragrafoetan esandakoa horrela izanik ere, foru-aldundiek eskuordetzan utz diezaiekete plan partzialak behin betiko onesteko eskumena 3.000 biztanle edo gutxiago duten udalerrietako udalei edo udalaz gaineko erakunde publikoei, betiere horretarako nahikoa zerbitzu tekniko baldin badute eta eskuordetza onartzen badute. Halaber, 3.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek eskuordetzan utz diezaiekete plan partzialak behin betiko onartzeko ahalmena estatutuen arabera horretarako eskumena duten udalaz gaineko erakunde publikoei edo foru-aldundiari, betiere horiek eskuordetza onartzen badute.*

Kasu honetan, plan berezi hau onartzeko ebazteko eskumenari dagokionez, adierazi behar da Planeamendu Orokorra garatzeko instrumentuen onartzeko eskumena 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu bitartez Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrean dagoela eskuordetuta. Bestalde, behin betiko onarpenerako Osoko Bilkurak du eskumena, Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c. artikuluari jarraiki. Hala ere, behin betiko onarpena baino lehen informazio batzordean diktaminatu beharko da.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bosgarrena.-Azkenik, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamendu tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua kontuan hartu behar da.

Dekretu honen arabera, honako hau izango da Plan Bereziak onartzeko prozedura:

***32. artikulua** Plan bereziak egiteko eta onesteko prozedura.*

*Plan bereziak dekretu honetan plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin eta onetsiko dira.*

*Eusko Jaurlaritzako edo foru-administrazioko sailen bati dagozkion sektore-eskumenetan oinarritzen diren plan bereziak, hain zuzen Eusko Jaurlaritzako edo foru-administrazioko organo eskudunak egin, izapidetu eta onetsiko ditu, eta sustatzaileak aurkeztuko du, organo substantiboa den aldetik, ingurumen-ebaluazio estrategikoari hasiera emateko eskabidea eta dagokion dokumentazioa, ingurumen-organoaren aurrean.*

*Hasierako onespena eman ondoren, planari buruzko txostena egin beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta eraginpean hartutako udal eta kontzejuek, eta bi hilabeteko epea izango dute horretarako. Izapide horrekin batera ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion izapidea egingo da.*

*Lurralde-antolamenduko tresna baten zehaztapenak garatzeko egiten diren plan bereziak sektoreko organo eskudunak egingo ditu, horretarako plan orokorrik egon ez arren, plangintza onesteko aurreikusitako prozeduraren arabera. Aipatutako plan berezia eraginpeko toki-erakundeek egin behar dutenean, artikulu honen aurreko zenbakian aurreikusitako prozedura berbera jarraituko da.*

*Bai birgaitze- eta berritze-plan berezien kasuen, bai hiria berroneratzeko plan berezien kasuan, bai monumentu-multzo edo higiezin kalifikatuak babestu eta kontserbatzeko plan berezien kasuan, hasierako onespena eman ondoren, kultura- eta etxebizitza-arloko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailek txostena egingo dute, hilabeteko epean. Epe hori amaituta, jarraitu ahal izango da izapideekin. Kultura-arloko eskumena duen sailaren txostena loteslea izango da kultura-intereseko higiezinen abiarazte-ebazpenetan edo behin betiko kalifikazio-ebazpenetan ezarritako babes-araubideari dagokionez.*

*Lurzoru urbanizaezinei eragiten dieten plan bereziei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du planoi buruz.*

*Hiri-berroneratzerako plan bereziak izapidetzean, finkatutako auzoak ukitzen badituzte, eta ukitutako biztanleriaren gainean eragina badute, formulazioa abiarazteko udalaren erabakiarekin batera,*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*herritarrek parte hartzeko programa bat egon beharko da.*

Kasu honetan, artikulu horreri jarraituz, Plan Berezi honen izapidetzeari dagokionez Plan Partizalak izapidetzeko prozedura jarraitu beharko da:

***31. artikulua*** *Plan partzialak egiteko eta izapidetzeko prozedura.*

*Plan partziala egitea udalei dagokie edota edozein pertsona fisiko edo juridiko publikori edo pribaturi; kasu horretan, udal-administrazioak, betiere arrazoiak emanda, erabaki edo ukatuko du planaren hasierako onespena proposatutako dokumentuaren hutsuneek plana baldintzatzen badute eta hutsune horiek ezin badira plana izapidetu bitartean konpondu.*

*Ekimen partikularreko plan partzialen kasuan, ekimenaren sustatzaileak udalean aurkeztuko du plan partziala, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasierako eskabidearekin batera, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera osatutako ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera. Udal-ekimeneko plan partzialen kasuan, udalak idatziko du dokumentazio hori, eta zuzenean bidaliko du ingurumen-organora.*

*Bai ekimen partikularreko plan partzialen kasuan bai administrazio publiko eskudunak ofizioz egiten dituenen kasuan, ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organoak hura jaso aurretik, hasierako onarpena eman ahal izango zaie plan partzialei, bai eta jendaurrean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere. Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dagoela.*

*Baldin eta ingurumen-organoak erabakitzen badu ez dela aurreikusten plan partzialak ingurumenean ondorio nabarmenik izango duenik, planaren izapidetzeak aurrera egingo du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.*

*Bestela, txostenak xedatuko du plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren eraginpean jarri behar dela. Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta dokumentu horren berri emango dio udalari, edo hala badagokio, udalari eta sustatzaileari, eta haiek jarraitu beharko dute ondorengo apartatuetan aurreikusitako izapideak egiten:*

*Udalak, edo, hala badagokio, sustatzaileak plan partzialaren hasierako onespen-dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa egingo ditu irismen-dokumentua kontuan hartuta, eta plan partzialaren hasierako onespena gauzatuko du.*

*Ondoren, udalak, onespen horrekin batera, jendaurreko informazioaren nahitaezko izapidearen mende jarriko du plana, berrogeita bost egun baliodunEko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoko*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; plana, era berean, tirada handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da; horrez gain, eta aldi berean, eraginpeko administrazio publikoen eta aldez aurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunen kontsulta-izapidearen mende ere jarriko du plana.*

*Udala, aurreko izapideen alegazioak kontuan hartuta, behin-behingoz onetsiko du, eta espedientea ingurumen-organora bidaliko du ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko. Adierazpen hori bi hilabeteko epean egin eta jakinarazi beharko da, eta epe horretan egiten ez bada, izapideak egiten jarraitu ahal izango da.*

*Hiru mila biztanleko edo gutxiagoko udalerriak direnean, behin-behineko onespena emateko erabakia hartu ondoren, hamar eguneko epea egongo da erabakia hartu denetik espedientea dagokion foru-aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan.*

*Plan partzialaren behin betiko onespena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 96. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera ebatziko da.*

Kasu honetan, zehazki, ekimen partikularreko Plan Berezi bat izanik, interesdunak Plan Berezia ingurumen-dokumentu estrategikoarekin bat aurkeztu du.

Bestalde, Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 85.artikuluak hurrengokoa adierazten du lizentzien ematearen etendurari dagokionez hirigitnza planen onespen kasuetan:

***85. artikulua** – Lizentzia-emateak etetea.*

*– Hirigintzako planei hasierako onespena emateko eskumena duten administrazioek, urtebetez gehienez, edozein eratako hirigintzako onarpen, baimen edo lizentzia emateko aukera etetea erabaki dezakete eremu edo erabilera jakin batzuetarako, betiere plana egiteko edo, hala badagokio, aldatu edo berrikusteko bada. Etendura, hain zuzen, planari hasierako onespena ematen zaionean, betiere, edo aurrerakina egiteko erabakia hartzen denean hasiko da.*

*– Eragingarria izan dadin, aurreko paragrafoan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duten egunkarietako batean argitaratu behar da.*

*– Hirigintzako planei hasierako onespena emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin badago.*

*– Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*planari behin betiko onespena epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean.*

*– Aipatutako kasuetan, etenduraren eragina amaitzen denean, ezin izango da beste etendurarik ezarri espazio berean eta helburu berberarekin harik eta bost urte pasatu arte.*

*– Etenduraren jakinarazpena argitaratu aurretik lizentziak behar bezala eskatu dituztenek proiektuen kostuaren besteko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute. Eskabidea egiteko unean lurraldearen eta hirigintzaren alorrean indarrean zegoen araudia edo antolamendua bete ez izateagatik eskabidea zuzenbidearekin bat ez badator, ez da eskubiderik izango proiektuaren kostua itzultzeko.*

*– Dena dela, proiektuaren kostua itzultzeko eskubidea etenda geldituko da harik eta, dena delako plana onartu ondoren, proiektua horko zehaztapenekin bateragarria ez dela ziurtatzen den arte.*

Beraz, eta kontuan hartuta Plan Bereziko xedapenek izan dezaketen eragina beheko solairuko higiezinen erabileretan, erabileraren aldaketak emateko lizentzien baldintzen aldaketak, besteak beste, egokitzat hartzen da alde zaharreko eremuko ondasun higiezinen beheko solairuen erabilera aldaketen lizentziak etetea. Eta honekin erlazionatuta, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari eskatuko zaio alde zaharreko eremuan aurkitzen diren beheko solairuko etxebizitzei erabilera turistikoa emateko eskariak eteteko. Etendura hau Plan Bereziaren hasierako onarpenetik urte bateko iraunkortasuna edukiko du edo Plan Bereziaren behin betiko onespena ematen den arte.

Azkenik, informazio publikoari dagokionez, aipatutako Dekretuak hurrengokoa adierazten du:

***5. artikulua*** *Informazioa jendaurrean jartzeko izapidea lurralde- eta hirigintza-plangintza onesteko prozeduran.*

*Lurralde-antolamenduaren plangintza onesteko, berrikusteko edo aldatzeko prozeduretan, prozedura horiek jendaurrean jartzeko, iragarkiak argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Euskal Autonomia Erkidegoko egunkari zabalduenetako bitan gutxienez.*

*Halaber, izapidetzeko eskumena duen organoaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.*

*Hirigintza-planen onespena, berrikuspena eta aldaketa jendaurrean jartzeko izapidean, dagozkion iragarkiak argitaratuko dira dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, hala badagokio, lurraldean hedapen handiena duen edo gehien saltzen den egunkarian eta dagokion udalaren edo aldundiaren edo, hala badagokio, Autonomia Erkidegoaren egoitza elektronikoan.*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*Udalek ere bidezko iragarkiak eta jendaurrean jarri behar den dokumentazioa argitaratuko dituzte beren egoitza elektronikoetan, jendaurrean jartzeko legez aurreikusitako epeetan, eta informazio hori behin betiko onetsi arte edukiko dute.*

*Plangintza aldatzeko espedienteetan, aipatutako planak eta tresnak biltzen dituen dokumentazioaz gain, aurreko paragrafoan azaldu dugun bezala, honako gai hauek azaltzen dituen egikaritze-laburpen bat jarri beharko da jendaurrean:*

*Proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena zer eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketaren norainokoa adieraziz. Egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko tresnak eta toponimiaren erreferentzia ere sartuko dira.*

*Hala badagokio, hirigintza-antolamendua edo egikaritzeko prozedurak eteten diren eremuak, eta etendura horren iraupena.*

*Ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egiten zaien planetan, jendaurrean jarri behar den dokumentazioak ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du.*

*Jendaurrean jartzeko epean argitaratzen diren iragarkietan, hirigintza-tresnen izapidetzean, kokapen-erreferentziak sartu beharko dira, eraginpeko eremua identifikatzea ahalbidetuko dutenak, eta eremu horren kokalekua edo kokapena eta antolamenduaren xede diren areak, sektoreak edo unitateak zehaztuko dira gutxienez.*

Beraz, kasu honetan, iragarkiak argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen handiena duen edo gehien saltzen den egunkarian eta Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan.

Egoitza elektronikoari dagokionez, iragarkiak eta jendaurrean jarri behar den dokumentazioa argitaratu beharko da, jendaurrean jartzeko moduan aurreikusitako epeetan, eta informazio hori behin betiko onetsi arte eduki beharko da.

Azkenik, Telekomunikazioen inguruko Ministeritzako Telekomunikazio Sare eta Operadoreen Zuzendariordetza Nagusiaren txostena jaso behar da espedientean. Hori dela eta, txosten hau jasotzeko eskaera aurreikusiko da erabakian. Bestalde, izapidean txostenak igorri dituzten organo sektorialek adierazitakoa bete beharko da.

**Erabakia**



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Bermeoko alde zaharraren babes eta mantentzerako Plan Berezia hasieraz onartzea, izapidetzean txostenak egin dituzten organo sektorialen oharren kalterik gabe, zeintzuk honek bere txostenean adierazitakoa bete beharko baita.

BIGARRENA.- Plan honen hasierako onarpenaren ondoren Telekomunikazioen inguruko Ministeritzako Telekomunikazio Sare eta Operadoreen Zuzendariordetza Nagusiari dagokion txostena egiteko eskatzea.

HIRUGARRENA.- Plan Berezia hasieraz onartu eta urte bateko epean edo eta betiere, behin betiko onarpenerarte, hura lehenago ematen bada, Plan Berezi honen objektu den eremuan, alde zaharra, besteak beste, kokatutako beheko solairuko higiezinen edozein erabilera aldaketa egikaritzeko hirigintza lizentziak eten.

LAUGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari eskaera igortzea Plan Berezia hasieraz onartu eta urte bateko epean edo eta betiere, behin betiko onarpenerarte, hura lehenago ematen bada, Plan Berezi honen objektu den eremuan erabilera turistikoko baimenak eteteko.

BOSGARRENA.- Plan Berezia jendaurrean jartzea eta hogei eguneko epea zabaltzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen handiena duen edo gehien saltzen den egunkarian eta Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuta.

SEIGARRENA.-Erabaki hau organo sektorial desberdinei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran.

## 4.- ARRESI KALEA 32AN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO, IGOGAILU BAT INSTALATZEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA.

### Xedea

Bermeoko Arresi kalea 32an irisgarritasun baldintzak hobetzeko, igogailu bat instalatzeko obra-lizentzia onartzea.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko otsailaren 22an, 79.114.723-J NAN zenbakidunak, Arresi kalea 32an irisgarritasun baldintzak hobetzeko, igogailu bat instalatzeko lanen obra-baimena eskatzen du, Arresi 32 jabe elkargoaren izenean.

Horretarako, aurkeztutako eskaerarekin batera, Joseba Peña Zabala eta David Matilla García arkitektoek izenpetutako proiektua aurkezten du. Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztu da (2023-05-23) eta proiektuan bertan daude, kalitate kontrolaren plana, segurtasun eta osasunaren oinarrizko azterlana eta hondakinak kudeatzeko azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 140.591,31 eurokoa litzateke.

Bigarrena.- 2024ko apirilaren 15ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailera atxikita zegoen arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.-2024ko apirilaren 23an aurkeztutako dokumentazioa, Bermeoko Udaleko arkitektoaren txostenarekin batera, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilura bidali zen.

Laugarrena.- 2024ko maiatzaren 16an irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak txostena igorri zuen.

Bosgarrena.- 2024ko azaroaren 7an eskatutako Bermeoko Udaleko arkitektoak txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2024ko azaroaren 15ean interesdunak fidantza gordailatu zuen.

Zazpigarrena.- 2024ko azaroaren 15ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obrak eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Zortzigarrena.- 2024ko azaroaren 15ean Bermeoko Udaleko Urigintza, Obrak eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak erabaki proposamena igorri zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Bai txosten teknikoan bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, Arresi 32 zenbakiaren jabe elkartearen eskaria bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazio indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta toki administrazioen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikula kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 204ko apirilaren 24ko 1886. eenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Arresi kalea 32ko eraikineko irisgarritasun baldintzak hobetzeko, igogailu bat instalatzeko obra-lizentzia **EMATEA** onartzea, 79.114.723-J NAN zenbakidunak, 2024ko otsailaren 22an, Bermeoko Arresi kalea 32. zenbakiko jabe elkargoaren izenean, aurkeztutako proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da kokapena eta azalera udalarekin adostuz.
- Bermeoko alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziaren babes arkeologia neurriek azaltzen dute, Arresi kaleko 32an kokatutako eraikinean igogailua jartzeko fosoa egiterakoan Bizkaiko Foru Aldundiko Arkeologia Zerbitzuak zehaztutako azterlana burutu beharko dela, indusketa-arkeologia lanak eginaz. Hala, arkeologia lanen txostena aurkeztu behar du eskatzaileak, lur mugimenduekin batera eginiko azterketan oinarritua.
- Bermeoko alde zaharra birgaitzeko Plan Bereziak ezarritakoa errespetatu beharko da.
- Sarrera nagusiko atea Bermeoko Plan Bereziak ezarritakora egokituko da.
- Ate berria egurrezkoa izango da eta margotu egingo da ez barnizatu.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
| 9.1.4.7. Beste banako guztientzat 01/01-12/31 | 259,25 € | |
| 9.1.4.8. Bermeon erroldatutako familia 09/01-12/31 | 135,65 € | |
| 9.1.4.9.Bermeon erroldatutako banakoa 09/01-12/31 | 79,12 € | |



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

| | | |
|---|---|---|
| 9.1.4.10. Beste familia guztientzat 09/01-12/31 | 203,17 € | |
| 9.1.4.11. Beste banako guztientzat 09/01-12/31 | 129,62 € | |
| **9.2. ABONATUAK EZ DAUDEN PERTSONAK INSTALAZIOETARA SARTZEA** | | ***Aldaketak*** |
| **9.2.1. BANAKAKO SARRERAK** | | |
| **9.2.1.1** Ikasle, langabe, 65+ eta 22 urte baino gutxiagokoentzat | 3,15 € | **3,5 €** |
| 9.2.1.2. 21 urtetik gorakoak | 5,60 € | **6 €** |
| **9.2.1.3. Dutxa bakarrik** | | **2,5 €** |
| **9.2.2. 10 SARRERAKO BONUAK (2 hileko iraupena)** | | |
| 9.2.2.1. ikasle, langabe, 65+ eta 22 urte baino gutxiagokoentzat | 26,30 € | **31,50 €** |
| 9.2.2.2. 22 urtetik gorakoak | 45,50 € | **54 €** |
| **9.3. INSTALAZIOEN ERRESERBA, orduko** | | |
| 9.3.1. Squasha | 3,05 € | **3,5 €** |
| 9.3.2. Kiroldegiko kantxa, gela bat | 13,20 € | **14 €** |
| 9.3.3. Kiroldegiko kantxa argiarekin | 16,95 € | **18 €** |
| 9.3.4. Igerilekuko kale bat, ertaina alokatzea orduko | 18,25 € | **20 €** |
| 9.3.5. Kanpoko frontoia | 4,55 € | **5 €** |
| 9.3.6. Kanpoko frontoia argiarekin | 8,95 € | **9 €** |
| 9.3.7. Kanpoko eta herri eskolatako kantxa | 6,55 € | **10 €** |
| **9.3.8. Kanpoko kantxa argiarekin** | 8,55 € | |
| 9.3.9. Lasaitze gunea | | |
| 9.3.9.1. Saioko sarrera | 3,65 € | **4 €** |
| 9.3.9.2. 11 saioko bonoa **(urtebeteko iraupena)** | 32,85 € | **40 €** |
| 9.3.10. Txartela egitea eta armairuetako giltza galtzea | 3,85 € | **4 €** |
| **9.4. ALOKATZEAK/SALMENTAK** | | |
| 9.4.1. Squash pilotak | 2,20 € | **2,50 €** |
| 9.4.2. Igerilekuko txanoen salmenta | 3,25 € | **4 €** |
| 9.4.2. Kandauak | 3,75 € | **4 €** |
| 9.4.3. Nordic Walking-eko makilak alokatzea | 3,10 € | 3,10 € |
| **9.5. IKASTAROEN TARIFAK JARDUERA FISIKOEN TARIFAK** | | |
| **9.5.1. URA IKASTAROAK – INDOOR** | | |
| 9.5.1.1 Igeriketa eskola – Astean saio 1- **Umeak eta gazteak** | | |
| 9.5.1.1.1 Astebarruan | 15,20 € | **16 €** |
| 9.5.1.1.2 Asteburuan | 17,25 € | **18 €** |
| 9.5.1.2 Igeriketa eskola – Astean saio 1- **Helduak** | | |
| 9.5.1.2.1 Astebarruan | | **20 €** |
| 9.5.1.2.2 Asteburuan | 17,25 € | **22 €** |
| 9.5.1.3 **Jaio berrientzako** uretako saioak | | **35 €** |
| 9.5.1.4 Gimnasia uretan, akuafit, akuarunning, kardio aletak | | |
| 9.5.1.4.1 Saio 1 astean | 17,25 € | **18 €** |
| 9.5.1.4.2 Saio 2 astean | 24,35 € | **25 €** |
| 9.5.1.4.3 3 Saio astean | 30,45 € | **31 €** |
| **9.5.2. URA IKASTAROAK – OUTDOOR** | | |
| 9.5.2.1. Saio berezi bakarreko | | **7 €** |
| 9.5.2.2. Ur irekietan prestakuntza - 4 saio- | | **25 €** |



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI · IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

| | | |
|---|---|---|
| **9.5.3. LURRA IKASTAROAK – INDOOR** | | |
| 9.5.3.1. Saio bat astean | | **20 €** |
| 9.5.3.2. Saio bi astean | | **32 €** |
| 9.5.3.3. GAZTEAK: Gaztefit, Boxing, –astean saio bi- | | **25 €** |
| 9.5.3.4. 60 + gimnasia – denboraldia- abonatuak- | | |
| 9.5.3.4.1 Abonatuak saio bi astean | | **25 €** |
| 9.5.3.4.2 Abonatuak hiru saio astean | | **35 €** |
| 9.5.3.4.3 EZ abonatuak saio bi astean | | **50 €** |
| 9.5.3.4.4 EZ abonatuak hiru saio astean | | **70 €** |
| 9.5.3.5 Tailer bereziak - 20 saio- : Eskalada boulderrean, … | 76,05 € | **80 €** |
| 9.5.3.6 Saio solteak | 3,05 € | **3,10 €** |
| 9.5.3.7 Saio solteen hileroko bonoa | 29,45 € | **30 €** |
| 9.5.3.8 Biking birtuala - hileroko bonoa- | 15 € | 15 € |
| **9.5.4. LURRA IKASTAROAK – OUTDOOR** | | |
| 9.5.4.1 Saio berezi bakarreko | | **5,10 €** |
| 9.5.4.2. Aire librean prestakuntza – 8 saio- | | **32 €** |
| **9.6. ARTZA FRONTOIA** | | |
| 9.6.1. Dutxa bakarrik | 1,05 € | **1,50 €** |
| 9.6.2. Frontoia abonatuentzat | 10,75 € | **11 €** |
| 9.6.3. Frontoia abonatu ez direnentzat | 18,25 € | **20 €** |
| 9.6.4. Frontoia alokatzea | 225,01 € | **235,01 €** |
| 9.6.5. Frontoia ikuskizun bat emateko alokatzea | 354,00 € | **370 €** |
| 9.6.6. Frontoia (Bilbo Jai-alai-turismoari zuzendutako saioa) | | |
| 9.6.6.6.1 10 pertsona baino gutxiagoko taldeak | 5,07 € | **6€** |
| 9.6.6.6.2 10 pertsona baino gehiago taldeak | 20,28 € | **22€** |
| **10. AUTOKARABANAREN ZERBITZUGUNEA** | | ***Bardin*** |
| 10.1. KWh elektrizitate-kontsumo maximoa 12 orduko zerbitzua 5,00 | 5,20€ | 5,20€ |
| 10.2. Litroak zerbitzu bakoitzeko | 4,15€ | 4,15€ |
| **10.3 AUTOKABANEN SARBIDEA** | | |
| 10.3.1 Goi denboraldia (Aste Santu: ostegun santuaren aurreko ostiraletik, astelehen santuaren ospakizunaren hurrengo igandera arte, Ekainetik - Iraila arte biak barne) | 15 € | 15 € |
| 10.3.2 Behe denboraldia (gainerako hilabete eta datak) | 6 € | 6 € |
| 10.3ko tarifak eguneko aplikatuko dira ibilgailua sartzen denetik 24 ordu zenbatuta | | |
| **11. GAZTELUGATXEKO ZERBITZUAK** | | ***Aldaketak*** |
| 11.1. Tarifa orokorra | 10,00€ | **14,00€** |
| 11.2. 6 eta 12 urte bitartekoek **6 eta 16 urte bitarterkoak** | 3,00€ | **9,00€** |
| 11.3. 6 urtetik beherakoentzat | Dohanik | **1,00€** |
| **12.-BIZPARK** | | ***Bardin*** |
| 12.1 Urteko bonoa | 40,00€ | 40,00€ |
| 12.2 Seihileko bonoa | 20,00€ | 20,00€ |



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

| | | |
|---|---|---|
| 12.3 Hiruhileko bonoa | 10,00€ | 10,00€ |
| 12.4 Hileko bonoa | 4,00€ | 4,00€ |

**2. KULTUR EKINTZEN PREZIO PUBLIKOAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:**

**2.1.** Onuradunentzako deskontuak ez dira metagarriak izango.

**2.2.** Tarifen diru-bilketa, estatutuak edo esleipen-kontratuak betez, enpresa publiko edo enpresa entitate publikoek egiten badute edo enpresa pribatuek, mistoek edo, oro har, merkataritza-enpresek, eta euren izenean bidalitako ticket edo ordainagiriak erabiltzen badituzte, tarifa horietan BEZa sartuta dagoela ulertuko da.

**2.3.** BEZaren zerga-tasak aldatzen badira, tarifetatik sortzen diren zerga-oinarriei ezarriko zaizkie indarrean dauden BEZaren zerga-tasak, eta dagokion kuota kalkulatuko da.

**2.4.** SARRERAK: Sarrera edo bonua eskuratzen den unean ordaindu beharko da eta ez da dirurik itzuliko, sarrera erreserba baterako erosi, eta erreserbatutako instalazioa erabiltzeko egoera egokian ez badago izan ezik.

**2.5.** Kultur antzerki eta kontzertuen prezio publikoetako deskontuak kolektibo honako hauentzat finkatzen dira:
- Gazteak, 29 urte artekoak.
- Adinekoak, 65 urtetik gorakoak.
- Ezgaituak, %33a baino gehiagoko ezgaitasuna dutenak. Foru Aldundiko txartelaren bitartez kreditatu beharko da.
- Langabetuak, dagokion agiriarekin kreditatuta.

**2.6.** Elizan egiten diren kontzertuak, ikusleentzat dohainik izango dira.

**2.7.** Urtean behin, nagusien saio batean eta beste bat umeen saio batean, katxeta gehi takila modalitatea erabili ahal izango du Kultura Sailak. Kasu hauetan antzerki konpainien umeen sarrera prezioa 4,00€-6,00€ bitartekoa izango da eta antzerki konpainien nagusien sarrera prezioa 10,00€-12,00€ bitartekoa.

**3. UDAL BALIABIDEAK UZTEAREN PREZIO PUBLIKOAK ETA FIDANTZAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:**

**3.1.** SUBJEKTU PASIBOAK: Eskatzailea nor den kontuan izan barik, ekintza bera irabazi asmo bakoa denean prezio publikoa ordaintzeaz salbuetsita egongo da.

**3.2.** Prezio publikoak aplikagarriak izango dira baita gune eta eraikin publikoak ez diren tokietan antolatutako ekimenetarako udalak utz ditzakeen ondasunetarako ere.

Tarifen arabera prezio publikoaren kontura eskatu ahal izango diren kopuruak eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira eta tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

**3.3.** KUDEAKETA: Zerbitzua edo jarduera eskatzeko era, gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako eskaera orria aurkeztea izango da (IN-138). Bertan argi zehaztu beharko da ondasun mota eta kopurua.

**3.4.** Eskatzaileak, udalak zerbitzua onartzeko erabakiaren jakinarazpena hartzen duen egunetik hasita, egun biko epean, eta beti ere, ekintza hasi aurretik, prezio publikoaren autolikidazioa aurkeztu beharko du Berhaz bulegoan. Ordainketaren frogagiria aurkeztu ezean eta erabakian bertan adierazitako bestelako baldintzak bete ezean, ekimena bertan behera geratuko da eta baimen baldintzatua indargabetu egingo da.

Autolikidazioa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da eta epean ez ordaintzean,



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

premiamenduzko prozedura aplikatuko da.

**3.5.** FIDANTZAK: Eranskin honetan aitatutako udal ondasunak uzteagatik, prezio publikotik aparte, fidantzak ere eskatuko dira eta gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako epean edo momentuan aurkeztu/ordainduko ditu eskatzaileak. Uzten diren ondasunen kopuruaren arabera fidantzen zenbatekoak honako hauek izango dira:

| Ondasuna | Kopurua | Fidantza |
|---|---|---|
| 1- Plastikozko hesiak | 1tik 20ra | 87,12 € |
| | 21 edo gehiago | 261,36 € |
| 2- Burdinazko hesiak | 1tik 20ra | 48,58 € |
| | 21etik 50era | 145,74 € |
| | 51etik 90era | 291,49 € |
| 3- Plastikozko mahaiak | 1etik 10era | 211,65 € |
| | 11 edo gehiago | 423,30€ |
| 4- Egurrezko mahaiak euren astoekin | 1etik 10era | 211,65 € |
| | 11 edo gehiago | 423,30 € |
| 5- Egurrezko aulkiak | 1etik 30era | 55,90 € |
| | 31tik 60ra | 139,76 € |
| | 61tik 90era | 223,61 € |
| | 91tik gora | 279,51 € |
| 6- Konoak | 1etik 30era | 24,10 € |
| | 31tik 60ra | 60,26 € |
| | 61tik 90era | 96,41 € |
| | 91tik gora | 120,52 € |
| 7- 4 modulu arteko tarima eta eskailera | | 195,54 € |
| 8- Eszenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera | | 391,07 € |
| 9- Eszenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera | | 977,68 € |
| 10- Proiektorea | | 35,00 € |

4. Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen testu erregulatzailearen eranskina da testu hau.

**4. GIZARTE ONGIZATE ARLOKO ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:**
**HARRERA-ETXEA OSTATUAREN ZERBITZUA.**

**4.1.** SUBJEKTU PASIBOAK: gizarte urgentziazko egoera baten ondorioz edo etxeko indarkeriaren ondorioz aldi baterako zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo bizikidetza unitateak.

**4.2.** Salbuetsita egongo dira:

a. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat zuzendutako harrera ostatu zerbitzuak.

b. Kaudimenik gabeko pertsonei emandako ostatu zerbitzuak, aipatutako karga ekonomikoei aurre egiteko kaudimenik ez daukatela egiaztatzen duen udalaren gizarte zerbitzuen txostenaren bidez egiaztatuta dagoenean.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54 | DOCUMENTO: 20241145156<br>Datea: 26/11/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

4.3. KUDEAKETA:. Bermeoko Udalaren dekretu bidez onartuko da.

a. Prezio publikoaren likidazioak hil bakoitzaren amaieran ordainduko dituzte hil horretan zerbitzua erabiltzen duten onuradunek.

b. Lehenespenez, eta zerbitzugintza hasi baino lehen, eskarigileei likidazioak helbideratzeko kontu zenbaki bat eskatuko zaie. "ordainagiriak helbideratuta egon beharko dira. Udalak helbideratzea deuseztatuko du, ordainagiriak kitatutako edo blokeatutako kontura itzultzen bazaizkio."

c. Erabiltzaileak 2 hileko epea du ordainketa borondatezko epealdian egin ahal izateko, ohartarazpenaren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

d. Hileko zerbitzuaren arabera prezio publikoaren kitapena igorriko da, eta subjektu pasiboak hile bakoitzeko azken astean prezio publikoa helbideratuta ordaindu beharko du.

e. Ordainketa borondatezko epean egiten ez bada zorragatiko betearazpen-aldiaren hasiera automatikoa hasiko da, 2/2005 Arau Foralaren 60.2. artikuluarekin bat etorriz.

f. Udal Gizarte Ongizateko ebazpen bidez zerbitzua etetzen edo iraungitzen den kasuetan, erabiltzaileak ez du prezio publikorik ordaindu beharko. Berriz zerbitzua onartzen zaionean hasiko zaio kobratzen.

4.4. Udalak onartutako Prezio Publikoak arautzen duen ordenantza orokorrean Dirubilketa eta Ikusketa araudi fiskal orokorrean agertzen dena eta aplikagarria izango da legedian.

## 1.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

1. Etxez Etxeko Zerbitzu integral hau, osasun psikikoa, fisikoa eta gizarte ongizatearen arloan zailtasunak dauzkaten eta bakarrik bizi diran pertsonei zein familiei zuzenduta dago beraien familia eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzeko behar daben autonomia sustatuz.

ZERBITZUAREN HELBURUAK

a. Autonomian galera prebenitzea edota konpentsatzea, eguneroko bizitzako jardueran egiteko edota etxean bizgarritasun egokia mantentzeko laguntza emanez.
b. Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezaten erraztea.
c. Onuradunen gaitasunak garatzen erraztu, bakarrik egin ezin dituzten jarduerak egiten lagunduta.
d. Arretarako sare natural osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea.
e. Erabiltzaileak beren ingurune komunitarioan integrazioa erraztea, isolamendu egoerak galeraziz.
f. Bizikidetza giroa hobetzea. Horretarako arriskuren bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku-hartuko da.
g. Beste zerbitzu batzuen esku hartzea eska dezaketen egoerak detektatzeko zerbitzua izatea.

Etxez etxeko zerbitzua, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 legeak eta era berean Bizkaiko Foru Aldundiak ateratako 98/2007 Dekretuak arautzen dauzan ondorengo prestazioekin bateragarria izango da:

- Familia barruan zaintza informala egiteko prestazio ekonomikoak.
- Familia barruan laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoak.

Bateragarriak egiten badira Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa, etxeko laguntzaren intentsitatea murrizteari ekingo zaio, hala badagokio eta laguntza modu honetara emanago da:

GRADU III: 34 ordu hilean . GRADU II: 30 ordu hilean . GRADU I: 20 ordu hilean



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Etxeko laguntza zerbitzua, eguneko edo gaueko arreta zentroarekin edo zerbitzua horiekin lotutako diru-laguntza zerbitzua jasotzen bada, etxeko laguntza gehienez hilean 20 orduko izango da eta arreta pertsonalera zuzendutako jarduerekin.

2. Ordainketaren kudeaketa:

1. Zerbitzu publiko hau Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren onura hartzen duten pertsonek ordaindu beharko dute.

2. E.E.L.Z.ren onuradunek ausentzialdietan zerbitzuaren erreserbarako eskubidea izango dute, ondoko baldintzen arabera:

   a. Ausentzia borondatezkoa bada, ezin izango du urtean 30 egunetik gorakoa izan. Kasuan kasuko gizarte laguntzaileari astebete lehenago eman beharko zaio ausientziaren berri, eta bost egun lehenago zerbitzua ostera ere etxean jardunean abiarazten denean.

   b. Ezinbesteko ausentzia denean (ospitaleratzea dela edo behar bezala frogatzen den kasu larria dela eta) zerbitzua behar den beste denboran gordeko da.

   Kasu biotan, onuradunek ekarpenerako ezarri den portzentaiaren % 100 ordainduko dute, zerbitzua gordetzeko eskubidearen kontzeptupean.

3. Prezio publikoaren zenbatekoa orduko 40,33 eurotakoa da, zerbitzuaren kostuaren arabera.
4. Hala ere, kasu bakoitzerako eta beti ere zerbitzuaren erabiltzailearen unean uneko inguruabarrak kontutan hartuz konturako ekarpenak egiteko baremoak ezarri dira, inoizkotan ordaintzen denaren eta likidatzen denaren arteko aldearengatiko kobrantzak jasotzeko eskubidearen kalterik gabe.
5. Kasu bakoitzean, zerbitzua ezartzen den unean, Batzorde Errektoreak aztertuko ditu onuradunaren ekarpenaren portzentaia ezartzeko ondoreetarako aurkezten diren agiriak.

Inoiz ere ez zaie prezio publiko hori eskatuko zerbitzugintzaren kostu osoari aurre egiteko ekonomi ahalmen urria duten erabiltzaileei, eta horretarako zerbitzu hori finantzatzeko onuradunen edota UNITATE NATURALAREN ekarpenerako berariazko formulak ezarri dira (Prezio publikoen tarifan taulan agertzen den formula erabiliko da.)

Inola ere prezio publikoaren kostuak ez dau hileroko diru sarreren % 10 gaindituko.

6. Asistentzia kudeaketa

Diru sarrerak bermatzeko errenta Eusko Jaurlaritzak urterako jarritakoak izango dira.

E.E.L.Z. jasotzeko eskabidearekin batera, ondoko eranskinetan eskatzen diren agiriak ere aurkeztea derrigorrezkoa izango da. Zehaztutako agiriak ez ekartzea edo eta eskatzen dan informazioa eskutatzea zerbitzua jartzeko eskaria ezeztatzeko zioa izango da.

1. eranskina.- Unitate naturalen ekarpena.
2. eranskina.- Ekarri beharreko agiriak
3. eranskina.- Zerbitzuaren eskabidea.
4. eranskina.- Tasaren kontuko zorduntzeko baimena.
5. eranskina.- Patronatuari baimena emotea banketxeko saldoak ezagutzeko
6.eranskina.- Etxez Etxeko laguntza zerbitzuak eskaintzen dauzan balizko
eginkizunak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak eskaintzen ez dauzan eginkizunak

**2.- SANCTI SPIRITUS UDALAREN ZAHARREN EGOITZAREN ZERBITZUA.**

65 urte gorako eta mendekotasuna duten adinekoei zuzendutako ostatu zerbitzua da. Banakako arreta integral



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eskaintzen da, norberaren autonomia, duintasuna eta garapen pertsonala ahalbidetzeko eta gizarte, osasun eta ongizatea bermatzeko.

**1.- Hileko arreta:**

a. Egoitzan egotea: Gela, jantoki, garbitegi, garbitasun, animazio eta honeei jagokezan beste zerbitzuak sartzen dira prezio publiko honen barruan.

b. Bermeotarra izatea baldintzea beteten dauen egoileak, hemen ezarritako prezio publikoen % 60a ordaindu beharko dau, honako egoeran balego:

Gizarte langileek emondako txostenen arabera, emoten jakozan zerbitzuak ordaintzeko besteko egoera ekonomikorik ez badauka eta seme-alabarik badauka eta prezio publikoak osotasunean ez, baina zati baten ordaintzeko lagundu ahal badabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean, c puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

c. Hobariak: Bermeotarra dan eskatzailea, beti be ondoren zehazten diran egoeraren batean aurkitzen bada,prezio publikoaren-prezioa baino diru kopuru txikiagoa ordaindu ahal izango dau:

- Gizarte egoereari eta egoera ekonomikoari buruzko txostenaren arabera, bere egoera ekonomikoa jasoko dauen zerbitzua ordaintzeko nahikoa ez danean.

- Ezarten dan kuotea ordaintzeko, eskatzaileak seme-alabak badaukaz, horreek eskatzaileagaz batera prezio publikoaren %60a ordainketea ziurtatu beharko dabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean,3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

Eskatzaileak jasoten dauen zerbitzuari borondatezko ukapena argudiatzen eta eskatzen badau, hau gehienez 60 egun naturalekoa izango da eta epe horretan prezio publikoaren % 60 ordaindu beharko dau.

d. Erabiltzailearen zorrak: Indarreko prezio publikoen eta benetan ordaindutakoaren arteko diferentzia, b. atalean ezarritakoaren kontutan hartuta ere, zerbitzu-hartzailearen zor legez hartuko da.

Zenbateko horrek, gero kobratuko dira, diruren batzuk hartzen diranean, edo, hil eta gero, bere ondasunen kitapena egiten danean.

Horretarako, egoitzan sartzen danean, jagokon notario-agiria izenpetu beharko dau.

**2.- Sarrarearen kudeaketa**:

Bizkaiko Foru Aldundiko inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko, eta Inoren laguntza behar duten adinekoei egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorretarako eskabidearen kopia. (Egoitzan sartzeko prozesuan hau burutu behar da)

-1.ERANSKINA.- EGOITZAN SARTZEKO ESKARIA
-2.ERANSKINA.- ESKARIARI ERANTSI BEHAR JAKOZAN AGIRIAK
-3.ERANSKINA.- EKONOMIARI BURUZKO TXOSTENERAKO EGIAZTAGIRIAK (gaur eguneko eta orain bost urtetik honako ekonomia-ondasun egoerearen egiaztagiriak: banketxeetako mobimentuen txostenak eta jabetzearen erroldako txostenak).
-4.ERANSKINA.- PREZIO PUBLIKOAREN KONTURA KARGU BAIMENA
-5.ERANSKINA.- ZOR AITORPENA.
-6.ERANSKINA.- JANARIAK ESKATZEKO JANARI- EMOILEAREN AGINDUA.

**3 .- SANCTI SPIRITUS UDALAREN ZAHARREN EGOITZAREN EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA.**



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

65 urtetik gora dituzten eta mendekotasun arriskua (23-24 puntu, mendetasunaren Balorazio Baremoaren arabera) edo I. graduko mendetasuna (25etik 39 puntura bitartean mendetasunaren Balorazio Baremoan arabera) duen pertsonei zuzendutako Eguneko Arreta Zerbitzua arautzeko oinarriak ezartzea.

a. Ezarten diran prezio publikoak "Sancti Spiritus" Zaharren Egoitzan Jantoki eguneko arreta zerbitzua hartzen dabenei ordaintzeko dira.
b. Eguneko arreta zerbitzuko onuradunek prezio publikoak ordaindu beharko dabez, hauen ordez eta beti ere subsidiarioki, hartzaileen sendiek ordaintzeko erantzukizuna eukiko dabelarik.
c. Eguneko Arreta Zerbitzuaren tarifa ordaintzeko debengoa, onuradunak zerbitzua hartzen hasten dan egunetik aurrera sortzen da.
d. Horretaz gain, hileko prezio publikoaren kalkulua egiteko aipatutako zerbitzu hau zenbat egunetan erabili dan kontuan hartuz zehaztuko da.
e. Hala ere, jantoki sozialeko onuradunek etortzeko asmorik ez daukienean, Gizarte Ongizate Udal Patronatuan idatziz jakinaraziko dabe.

1. <u>Hileko arreta</u>:

a. Egoitzan egotea: Gela, jantoki, garbitegi, garbitasun, animazio eta honeei jagokezan beste zerbitzuak sartzen dira prezio publiko honen barruan.

b. Bermeotarra izatea baldintzea beteten dauen egoileak, hemen ezarritako prezio publikoen % 60a ordaindu beharko dau, honako egoeran balego:
c. Gizarte langileek emandako txostenen arabera, ematen jakozan zerbitzuak ordaintzeko besteko egoera ekonomikorik ez badauka eta seme-alabarik badauka eta prezio publikoak osotasunean ez, baina zati baten ordaintzeko lagundu ahal badabe.
Tarifak osorik ordaindu ezean,3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

d. Hobariak:

Bermeotarra dan eskatzailea, beti be ondoren zehazten diran egoeraren batean aurkitzen bada,prezio publikoaren-prezioa baino diru kopuru txikiagoa ordaindu ahal izango dau:

- Gizarte egoereari eta egoera ekonomikoari buruzko txostenaren arabera, bere egoera ekonomikoa jasoko dauen zerbitzua ordaintzeko nahikoa ez danean.

- Ezarten dan kuotea ordaintzeko, eskatzaileak seme-alabak badaukaz, horreek eskatzaileagaz batera prezio publikoaren %60a ordainketea ziurtatu beharko dabe.

Tarifak osorik ordaindu ezean,3.d puntuan zehazten diren zorrak sortuko dira

Eskatzaileak jasoten dauen zerbitzuari borondatezko ukapena argudiatzen eta eskatzen badau, hau gehienez 60 egun naturalekoa izango da eta epe horretan prezio publikoaren % 60 ordaindu beharko dau.

e. Erabiltzailearen zorrak:

Indarreko prezio publikoen eta benetan ordaindutakoaren arteko diferentzia, b. atalean ezarritakoaren kontutan hartuta ere, zerbitzu-hartzailearen zor legez hartuko da.

Zenbateko horreek, gero kobratuko dira, diruren batzuk hartzen diranean, edo, hil eta gero, bere ondasunen kitapena egiten danean.

Horretarako, egoitzan sartzen danean, jagokon notario-agiria izenpetu beharko dau.

2. <u>Sarrarearen kudeaketa:</u>



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiko inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko, eta Inoren laguntza behar duten adinekoei egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorretarako eskabidearen kopia. (Eguneko arreta zentroan sartzeko prozesuan hau burutu behar da)

-1.ERANSKINA.- EGOITZAN SARTZEKO ESKARIA
-2.ERANSKINA.- ESKARIARI ERANTSI BEHAR JAKOZAN AGIRIAK
-3.ERANSKINA.- EKONOMIARI BURUZKO TXOSTENERAKO EGIAZTAGIRIAK (gaur eguneko eta orain bost urtetik honako ekonomia-ondasun egoerearen egiaztagiriak: banketxeetako mobimentuen txostenak eta jabetzearen erroldako txostenak).
-4.ERANSKINA.- PREZIO PUBLIKOAREN KONTURA KARGU BAIMENA
-5.ERANSKINA.- ZOR AITORPENA.
-6.ERANSKINA.- JANARIAK ESKATZEKO JANARI- EMOILEAREN AGINDUA.

**4.-HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAKO ZERBITZUAK**

1. Mendekotasun arriskua (23-24 puntu, mendetasunaren balorazio baremoaren arabera) edo I. graduko mendetasuna (25etik 39 puntura bitartean mendetasunaren balorazio Baremoan arabera) duen pertsonei zuzendutako Etxe bizitza komunitarioa Zerbitzua arautzeko oinarriak ezartzea.

   Intentsitate txikiko zerbitzua da, adinekoei autonomiari eusten laguntzeko eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamenduegoerak ere konpentsatzen dira.

2. Ezartzen diren prezio publikoak, 3. Adinekoentzako ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAKO zerbitzuak hartzen dituenei "ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEK" ematen zaien zerbitzuak, edota beste edozein prestazio ordaintzeko, dira.

3. Eskatzaileak bermeotarrek, edota, eskaria egin baino hiru urte lehenagotik, Bermeon bizi direnek, euren ekonomi ahalmena nahikoa ez bada, prezio publikoak ordaintzeko, aurkeztutako agiriak ikusirik, Zuzendaritza Batzordearen iritziaz, zerbitzua ematea, onartuko zaie, horretarako zehazten diren dirutzak kontura ordaindurik , 4 . atalean ezarritakoaren kalte barik.

4. Ezarritako prezio publikoa edo azken ordain beharraren arteko diferentzia, 3. puntuaren arabera, zerbitzu-hartzailearen zor legez hartuko da.

   Era berean, 3. puntukoaren dirutzak ere, hartzailearen zor legez hartuko dira. Dirutza horiek, gero kobratzeko dira, dirutzaren batzuk hartzen direnean, edota, hil ondoren, bere ondasunen kitapena egiten denean. Horretarako, eta ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAN sartzen denean, dagokion notario agiria izenpetu beharko du. V. Eranskineko ereduaren arabera.

5. Hartzailearen eskariz, zerbitzuak hartzea, beharrezko gauzaren batagatik, izten bada, urtean 60 egunean gehienez, epe horren barruan % 60a hobarituko zaio, ordainkizunari.

6. Prezio publikoa ordaindu beharra, zerbitzua hartzen hasten denean sortzen da. 3. Adinekoentzat ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAN dagoen lehen hilabetean hilko balitz, edota, beste edozergatik, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA itziz gero, hilabetekoari dagokion kitapena egingo zaio, hamabost egun edo gutxiago egon bada ere.

7. ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAN sartzeko eskariarekin batera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu nahi ta nahiez, behar dan moduan sinatuta eta beteta:

   -1.ERANSKINA.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOETAN sartzeko eskaria
   -2.ERANSKINA.- Eskariari erantsi behar zaizkion agiriak.
   -3.ERANSKINA.- Txosten ekonomikoa.
   -4.ERANSKINA.- Prezio publikoaren kontura kargu baimena.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54 | DOCUMENTO: 20241145156<br>Datea: 26/11/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

-5.ERANSKINA.- Zor aitorpena.
-6.ERANSKINA.- Janariak eskatzeko janari-emoilearen agindua.
-7. ERANSKINA- Barne Araudiaren baldintzen onarpena

**5.- KIROL ZERBITZUEN ERABILERAGATIK PREZIO PUBLIKOAK KOBRATZEKO KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK:**

**5.1.** ABONATUAK: Abonuan alta emateak inskripzio-kuotaren ordainketa dakar berekin. Ordainketak aurretik egingo dira banku-helbideratzearen bidez.Alta eskatzen den lehen aldian ordea, dagokion ordainketa, txartelarekin egingo da, alta emateko agiri guztiak aurkezten diren unean.

**5.2.** Abonatu izaera lortzeko, beharrezkoa izango da, interesatuek, beren eskaria aurkeztea, dokumentu hauek erantsirik:
- Argazki bat.
- NAN-a, eta hitzartutako udalerrietakoa izanez gero, gaurkotutako errolda egiaztagiria.
- Banketxeko kontu korronteko edo libretako zenbakia eta kontu jabearen izena.
- Alta lehen aldiz ematen denean ordainketa txartelarekin izango da.

Familia unitatearen kasuan:

- Jabe eta onuradunen argazki bat.
- Jabe eta onuradunen NAN-a. Hitzartutako udalerrietakoa izanez gero,eguneko errolda eta elkarbizitza egiaztagiria.
- Familia liburuaren kopia eta familia ugaria izanez gero Foru Aldundiak ematen duen familia ugarien txartela.
- Familiaren abonuan 21 urte-arteko seme-alabak sartuko dira.
- Banketxeko libreta edo kontu korronteko zenbakia eta jabearen izena. Alta lehen aldiz ematen denean ordainketa txartelagaz izango da.

Kasu bereziak:

- Argazki bat.
- NAN-a.
- Langabetuen, ikasleen eta 65 urteko baino gehiago duten txartela.
- Ikasle edo langabetuek: ziurtagiria bere egoera egiaztatuz.

Ezgaitasunen bat daukienen kasuan:

- Argazki bat.
- NAN-a.
- Ezgaitasun portzentajea ziurtatzen duen Foru Aldundiak emandako agiria.

**5.3.** Bermeon erroldatutako ezgaituak diren pertsona abonatuak, urteko kuotaren prezio publikoan beherapenak jasoko dute norberaren ezgaitasun portzentajearen arabera. Horretarako beharrezkoa izango da erakunde eskudunak emandako ezgaitasunaren ziurtagiria aurkeztea.

**5.4.** Abonatuei, bai familia eta baita norbanakoei ere, txartel bat emango zaie, pertsonala eta transferiezina dena, eta beharrezkoa izango dena kiroldegira sartzeko nahiz Artza Udal Frontoiko instalakuntzen zerbitzuren bat erabiltzen denean.

**5.5. ORDAINKETA:**

a) Erabilera baimena hartzen den une berean ordaindu beharko dira prezio publikoak.



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

b) Kuotak urtean behin (berezko urtea) seihilabeteko (Uztailetik-abendura) edo lauhilabeteko (irailetik-abendura) ordaindu daitezke. Urdaibai txarteleko kuota aldiz, berezko urtean edo azken lauhilabetekoan (irailetik abendura).

c) Abonatuei buruzko idatz-zati honen ondorioetarako, familia izango dira helbide berean erroldatuta dauden Erregistro Zibiletan inskribatutakoak edo izatezko bikoteak.

d) Urteko kuotak banketxe helbideratze bidez ordaindu beharko dira. Lehenengo aldiz, alta eskatzen denean, eskatzaileak kuota osoaren ordainketa txartelaren bidez egingo du, hurrengoak helbideratuta izango dira.

e) Kuota, ordainketa motaren arabera, aldian aldiko 1. hamabostaldian ordainduko da. Urteko azken lau hilabeteko abonuaren kasuan irailearen 2. hamabostaldian.

f) Helbideratutako urteko familiako abonatuek zein bakarrekoek aukera izango dute ordainketa bi zatitan egiteko: %50a urtarrilaren lehenengo hamabostaldian eta %50a apirilaren lehenengo hamabostaldian.

g) Kuota urtekoa da, beraz, abenduaren 31 baino lehen baja emateak ez dakar itzultzerik.

h) Alta ematearekin batera, doako kirol txartel adimentsu bana emango zaie eskatzaileei abonatu gisa erabiltzeko. Kirol txartela galduz gero dagokiona ordaindu beharko du eskatzaileak berria ateratzeko.

i) Bajek jakinarazi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Ordainagiriak edozein arrazoirengatik ez ordaintzeak edo itzultzeak, administrazioak huts egin ezean, harpidedun izaera automatikoki galtzea dakar.

j) Baja hartuz gero, alta berria dagokion matrikula ordaindu ondoren egingo da.

k) Abonatu batek baja eskatu nahi izanez gero, baja inprimaki ofiziala beteko du. Baja eskatzeko epea berezko aldi bakoitzaren azken astean amaituko da.

l) Azaldutako murrizketen edo hobarien onuradun izateko (familia ugaria, ezgaituak, ikasleak …), eskaera egin beharko da, deskontua eragin duen egoera egiaztatuz urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, hurrengo urterako ondorioekin, eta data horren ondoren eskubidea galduko da.

m) Kuotaren hobariak edo murrizketak ezin dira metatu.

n) **Ez ordaintzeak**: Abonu, ikastaro, erreserba eta abarren kuota/ordainagiria ez ordaintzeak pertsona abonatuaren izaera eteten du eta, beraz, baita instalazioetara sartzea ere (egoera hori familia-abonuetako kideei ere zabaltzen zaie).

o) Ordainketa/sarbidea berreskuratu egingo da, ordaindu gabeko ordainagiria ordaindu ondoren.

p) Ordaindu gabeko hartu-agiriagatiko zorra legez ezarritako epeetan preskribatzen da.

q) Alta berriz eskatzen bada, ordaindu gabeko kuotak ordaindu behar dira.

r) Helbideratutako erreziboa atzera bueltatzeak urteko 1go hamabostaldian, urte hasieratik egindako erabilerei dagokien sarrerak ordaintzea ekarriko dau.

s) Bonuetako erabiltzaileei (gazteen bonua- 10 sarrera-, helduen bonua – 10 sarrera-, lasaitze gunerako bonua,…) eta kirol ikastaroetako ez abonatuei, ordaindu beharreko txartel adimentsua emango zaie, eta eskatutako erabilerak amaitu ondoren kiroldegiko harreran itzultzen duenean ordaindutakoa itzuliko zaio.

**5.6. IKASTAROAK:**



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

a) Denboraldi osoan, hau da, urritik ekainera, dauden ikasleek lehentasuna izango dute denboraldi berrian izena emateko. Kirol-ikastaroren batean eskainitako plazak gainditzuz gero, okupazioa zozketa bidez erabakiko da. Abonatuek izena eman ahal izango dute epea amaitu eta aurreko taldearen zozketa egin ondoren. Kasu horretan ere, zozketa bidez ebatziko da ikastaro batean gehiegizko okupazioa izatea. Azkenik, izenematea gainerako interesdunei irekiko zaie, izena eman duten hurrenkeran, plaza guztiak bete arte.Ikastaroak eten edo ezabatu ahal zango dira, eskariak ez badu justifikatzen ikastaro horiek egiten jarraitzea.

b) Ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona-kopururik ez badago, eten egingo da, eta izena emanda dauden pertsonei ordaindutakoa itzuliko zaie.

c) Ikastaroetan izena eman dutenek (helbideratutako ordainketarekin) jarduneko ikastaro-egile izaten jarraituko dute denboraldi osoan, ofizialki baja eskatzen ez duten bitartean. Behin eta ikastaroak hasi, baja emateko, Udalaren Kirol Saileko bulegoan jakinarazi beharko da, baja eman nahi den aurreko hilaren 22a baino lehen.

d) Berritzeak automatikoki egingo dira helbideratutako ordainketa aukeratzen dutenentzat, ekainera arte, hori barne. Kreditu-txartelarekin ordaintzea aukeratzen dutenek aurreko hilabeteko 22a baino lehen berritu beharko dute.

e) Ikastaroa berritzeko ezarritako epearen barruan ordaintzen ez bada, dagokion ikastaroan baja emango da.

f) Ikastaroetako prezioak abonatuentzako prezioak dira (Bermeoko eta Urdaibai KTX dutenentzako); abonatuak ez direnek ikastaroetan parte hartzeko publikatutako prezioen bikoitza ordaindu beharko dute.

g) Helbideratutako ikastaroen kobraketa lehenengo astean egingo da, helbideratu gabeko ikastaroen ordainketa aurreko hileko 22a baino lehenago egingo da.

h) Lasaitze guneko bonoak urtebeteko iraupena du.

i) 60+ ikastaroaren tarifa, denboraldi osoari dagokio (saio bi/hiru astean, urritik ekainera). Gabonetan eta Aste Santutan aste biko oporrak eukiko dabe eta ekainaren erdialdean amaituko da ikastaroa.

j) Urdaibai kirol txartela Bermeon aterata eta Bermeoko kirol txartela duten famili bereko seme-alabek sasoi berean egindako ikastaroetan beherapen hauek izango dituzte:

-1goak %100ean ordainduko du, 2.ak %50eko beherapena izango du eta 3.etik aurrera ikastaroa dohainik izango da.

k) Kiroldegia zabalik dagoen jai egunetan ez da egongo ikastarorik.

l) Ezinezko kasuetan bakarrik onartuko da kuotaren itzulketa (lesioak edo medikuak emandako bajak), eta jarduera hori abian jartzen lortzeko ez den kasuetan hileko lehenengo lau egunetan. Baita antolakuntza arazoagatik edo bestelako ezintasunagatik ikastaro batek hile baterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago betetzen denean ere, eman gabeko denboraren arabera, zerrendako itzulketa proportzionala aplikatuko da:

| galdutako klase ordu kopurua | itzulketa |
|---|---|
| %0tik-%25era | %0 |
| %26tik-%50era | %25 |
| %51tik-%79ra | %50 |
| %80tik-%100era | %100 |



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80011794400O6V1P4D1C0P6

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54

DOCUMENTO: 20241145156
Datea: 26/11/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

## 7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 8.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



CSV: 07E80011794400O6V1P4D1C0P6

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E80011794400O6V1P4D1C0P6 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/11/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2024 11:19:54 | DOCUMENTO: 20241145156<br>Datea: 26/11/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|